

8

Auzolana euskarazko kulturgintzaren ardatz

Igor Elortza

Bertsolaria

igor.elortza@gmail.com

Sarrera-data: 2012-05-20 | Onartze-data: 2012-06-20

Laburpena. Euskararen geroa ziurtatzeko eta euskaldunon elikagai sinbolikoak sortuko dituen kulturgintza antolatu eta bideratzea da gure kezka. Eta gure ustez, euskaldunok auzolanean ardazturiko kulturgintza antolatu behar dugu horretarako. Euskarazko kulturgintzan herritar antolatuok behar dugu ardatz, lan instituzionala eta komertziala ere ardatz horri batuz. Instituzioen eta merkatuaren logikan euskal kulturak ahuleziak baitituzte. Laburtuz, euskaldunok auzolanean ardaztuta instituzioen eta merkatuaren logikak barneratzen dituen kulturgintzaren alde egin behar dugulakoan gaude. Horrek esan nahi du merkatuan eta instituzioetan ere landu behar dela auzolana, autoritatea irabaziz eta begirunez jokatzuz. • *Hitz-gakoak:* Kulturgintza, auzolana, herri-antolakuntza.

Abstract. Community work, the hub of cultural activity in the Basque language. Our concern is to organise and implement the cultural activity that will guarantee the future of Basque and provide us Basques with symbolic nourishment. And in our view, in order to achieve this, we Basques need to organise cultural activity that has its hub in community work. In Basque cultural activity we, as organised citizens, need to be a hub, and institutional and commercial work also needs to be added to it. The reason is that according to the logic of the institutions and the market, Basque culture has its weaknesses. In short, we Basque speakers believe that we need to support cultural activity that incorporates institutional and market logics, and that it must be built up around the hub of community work. That means that community work also needs to be developed in the market and institutions, that authority should be earned and that one should act with respect. • *Key words:* Cultural activity, community work, popular organisation.

Kultur sistema bat, beste edozein arlo legez, hiru erataria antolatu dezakegu: herri-antolakuntza (auzolanekea), instituzioak (normatiboa) eta merkatua (komertziala). Laugarren aukera berez joaten uztea litzateke; euskaldunon kasuan, betirako joaten uztea.

Euskararen geroa ziurtatuko eta euskaldunon elikagai sinbolikoak sortuko dituen kulturgintza antolatu eta bideratzea da gure kezka. Eta gure ustez, euskaldunok auzolanean ardazturiko kulturgintza antolatu behar dugu horretarako. Euskarazko kulturgintzan herritar antolatuok behar dugu ardatz, lan instituzionala eta komertziala ere ardatz horri batuz.

Izaera bikoitza dugu euskaldunok: norbanako moduan mendebaldeko hiritarrak gara bete-betean; kultura moduan, berriz, mendebaldeko eredutik kanpora gaude, estaturik bako eta merkatu txikiko kultura izanik. Bi izaerak konplexutasun osoan kontuan hartu barik, ezin dugu euskarazko kulturgintza eraginkorrik antolatu: sortu, gozatu, sustatu, hedatu, arautu, kontsumitu...

Euskaldunon izaera bikoitz horrek suposatzen duen konplexutasun osoan, beraz, hiru kultur logikak landu behar ditugu, eraginkorrak izatekotan. Gaur eta hemen, hiru logikak bizi-bizirik baititugu. Kantagintza da adibiderik garbiena: Kanta berberak balio dute herri-bazkari baten osteko ospakizun komunitariorako, instituzioek arauturiko hezkuntza sistema baten baitako heziketa kulturalerako, zein abeslari atzerritarrekin ondutako disko hirukoitz komertzial baterako. Objektuak (kantak) berberak dira; subjektuak (parte-hartzaileak) eta funtzio sozialak, berriz, diferenteak.

Hala, bada, euskarazko kulturgintza indartsu bat antolatzeko, euskaldunok hiru kultur logikak beharrezko ditugun ustea dugu guk. Hain zuzen ere, eraginkortasunari begira hiru kultur logikak ikuspegi kritikoarekin landu behar ditugula deritzogulako egiten dugu auzolanaren aldeko apustua.

Herri-antolakuntzaren senak ekarri du euskara eta euskarazko kultura hogeita batgarren menderaino, eta sen horrek indartsu dirauen eremuetan da gaur ere indartsu. Edozelan ere, egia da azken hamarkadetan indar handiagoa jarri dugula, batetik, diskurtso normatiboetan (logika instituzionala) eta, bestetik, lanketa komertzialetan (merkatuaren logika): eskubideak, legeak, diru-laguntzak...; profesionalizazioa, zerbitzugintza, erakargarritasuna...

Aztertu dezagun, baina, ikuspegi kritiko batetik, hiru kultur logika horietako bakoitzaren eta euskaldunon arteko hartu-emanaz, labor-labor:

Kulturgintza merkatuaren logikan ardazteko oso ahulak gara euskaldunak. Merkatuak zenbakiak dira, eta gure zenbakiek ez dute baliabide

***Izaera bikoitza
dugu
euskaldunok:
norbanako
moduan
mendebaldeko
hiritarrak gara
bete-betean;
kultura moduan,
berriz,
mendebaldeko
eredutik kanpora
gaude, estaturik
bako eta merkatu
txikiko kultura
izanik.***

***Euskaldunok
auzolanean
ardaztuta
instituzioen eta
merkatuaren
logikak
barneratzen
dituen
kulturgintzaren
alde egin behar
dugulakoan
gaude. Horrek
esan nahi du
merkatuan eta
instituzioetan ere
landu behar dela
auzolana,
autoritatea
irabaziz eta
begirunez
jokatuz.***

indartsurik ematen: hedabide eta enpresa gutxi eta txikiak erauntsi globalaren menpe, star system murriz eta umil bat mantentzeko lain. Baina kontuz: ezin dugu euskaldunongan logika horrek duen eragina gutxietsi, eta handinahikeria bezain kaltegarria gertatu dakiguke bazter-zalekeria; gainera, artistak ere jarri behar du bere burua zenbakien ispiluan.

Logika instituzionalean ardazteko ere ahulak gara. Instituzioek araez eta legez dakite, eta gure instituzioak beste nazio-kultura-estatu batzuen legeen menpeko dira. Arlo honetan ahulak izateaz gainera, egon ere ez gaude indartsu. Zailtasun objektiboek (indarrean dagoen legedia eta elkarrekin bizi garen bi identitateak) eta zailtasun subjektiboek (euskararen estigmatizazioa eta euskaldunon konplexuak) sortu duten anabasa argitzea behar-beharrezkoa da. Badirudi lehen jabekuntza-urratsa egin dugula: hasi gara kultura ere politika dela esaten. Baina ez da hori bakarrik: modernoa/tradizionala, popularra/jasoa, lokala/unibertsala eta antzeko irizpideak botere-harremanetan oinarritzen dira hein handi batean. Beharrezko dugu, bada, geure baitarako diskurtso garrazko bat sortu eta adostea. Ondoren jendarteratu eta defendatu ere egin beharko dugu diskurtso hori, aldi berean zera ahaztu barik: eguneroko politikagintza eta eguneroko kulturgintza bi esparru dira, eta kultura da desberdinen arteko zubiak egin eta biziguneak eraikitzeko modurik ahaltsuenetakoa.

Baina, gurean zentratuz, berriz diogu: auzolaneko logikan gara indartsu. Auzolanak jendeaz eta espazio publikoaz daki. 1/1eko eskalan harremanek agintzen dute, ez legeek. 1/1eko eskalan konpetitiboak eta erakarriak gara. Edozelan ere, ez diogu dena erraza eta polita denik. 1/1eko eskalak umiltasun eta energia handia eskatzen ditu: beste norbanako zein taldeen berri jakin eta ezagutzea, helburuak konpartitzea, elkarrekin lan egiteko prestutasuna eta nahia... Bestelako balore-eskala batean ari gara, gainera, eta barneratu beharreko beste kontu bat baloratzeko modua bera da, hain zuzen ere: antolatzea ere sorkuntza da, eta dena delako ekitaldia prestatzeko egindako bideak ekitaldiaren eguneko emaitzak adina (edo gehiago) balio eta inporta du; zenbat jende edo talde jarri garen elkarlanean, artista profesionalak eta amateurrak nahastu ditugun, antzokietara heltzeaz gainera eskoletara, koadriletara edo etxeetara heldu garen eta abar. Edozelan ere, ondo egiten bada, espazio publikora jo eta jendearekin lan egiteak merkatuaren logikan agintzen eta administrazioaren logikan eragiten duen zenbakien balore-eskalan ere irabaztera garamatza: hasieratik gara gehiago, baina, gainera, kontua da sortzen duenak gozatu egiten duela eta gozatzen duenak erakarri egiten duela.

Laburtuz, euskaldunok auzolanean ardaztuta instituzioen eta merkatuaren logikak barneratzen dituen kulturgintzaren alde egin behar dugulakoan gaude. Horrek esan nahi du merkatuan eta instituzioetan ere landu behar dela auzolana, autoritatea irabaziz eta begirunez jokatzuz.

Baina hau guztia teoria da, eta herrietan ekiteko bost kontzeptu azpimarratu behar lirateke: jendea (gu jendea gara, gu eta beste asko), espazio publikoa (kalean, eskoletan, jaietan ekin), parte-hartzea (ikusleak egile), gozamina (gozatzen duena zaletu egiten da eta kontsumitu egiten du) eta bizipoza (egizu nahi duzulako, ez egin behar delako).

ADIBIDE BAT: DURANGOKO ZILAR ASTEA

I

Durangoko Plateruena kafe antzokia Durangon kultur eskaintza oro har aberastu eta bereziki euskarazko kulturgintza sustatzeko sortu zen 2004an, Berbaro euskara elkartearen bultzadaz eta 900 herritarrek diru-ekarpena eginda. Esan dezagun, beraz, asko laburtuz, 1980ko hamarkadaren amaieran giro politiko gatazkatsu baten erdian botere-kontrabotere logika gainditu eta euskararen alde aldarrikapenetik ekintzara pasatu zen mugimendu anitz bat duela sorburu, eta Euskal Herri osoko mugimendu horrek oro har 1990eko hamarkadaren amaieran profesionalizatorako eta konpetitibitaterako egin zuen apustuan bete-betean egin genuela jauzi: hiru logikak, berriz ere.

2009ko udan gogoeta egin genuen gure ibilbideaz, eta, jatorrizko idearioa erreformulatuz, hiru ondorio nagusi atera genituen: programaziotik sorkuntzarako jauzia egitea; ikuskizun eskaintzaz gainera, parte hartzeko proposamenak egitea; eta Plateruena kultur proiektu moduan lantzea, gune izateaz haratago, Durango osoan egin eta eraginez. Gogoetak eta ondorio nagusiak bazuen, beraz, dezenteko auto-kritika: merkatuaren logikan ardaztetik, auzolanaren logikara itzuli behar genuen.

Auzolanaren aldeko apustu sendoa egin dugu, hainbat ekimen abiatuz Durangoko nahiz Euskal Herri osoko sortzaile, gune, kazetari, programatzaile, irakasle, herri-agintari eta abarrekin. Ekimen horiei 'Zilarrrezkoak' deitu diegu: Kantuaren Kantoiia (kantari eta zaleen arteko berbal-di-musikatu zikloa, kazetari bat gidari), Berbertan (kultur, gizarte zein politikari buruzko elkarrizketa zikloa, zeresan handiko elkarrizketatu eta elkarrizketatzaileekin), DF bertsoZALE eskola (bertsozaleei zuzenduriko dibulgazio saioak bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta abarrekin) Kantulagun (jendea kanturako batzeko gunea, abeslari batek gidatuta) AIKO erromeria (jendea dantzarako batzeko gunea, Aikoko lagunek

**Auzolanaren
aldeko apustu
sendoa egin
dugu, hainbat
ekimen abiatuz
Durangoko nahiz
Euskal Herri
osoko sortzaile,
gune, kazetari,
programatzaile,
irakasle, herri-
agintari eta
abarrekin.
Ekimen horiei
'Zilarrezkoak'
deitu diegu.**

gidatuta) eta Zilar Astea (Durangoko deneriko guneetan eta hainbat adierazpide artistikoren bidez garatzen den aste tematikoa).

Energia handia eskatzen digu ildo honek. Izan errazagoa da ikuskitzunik kontratatu, kartelak jarri, elkarrizketaren bat lortu eta takilan itxarotea. Baina egiten dugu hori ere; euskarazko eskaintzari dagokionez emaitza eskasagoekin. 'Zilarrezkoek' harrera ona dute: parte hartzeko aukera eskertu egiten du jendeak, gozatzen duena zaletu egiten da eta jende gehiago erakartzen du, eta zaletzen dena ikuskitzuketara ere hurbiltzen da. Eta, gainera, lehenago bakoitza geure aldetik genbiltzan hainbat kultur eragilek elkar ezagutu eta ulertzea lortzen gabilta, eta horrek beste sendotasun bat ematen digu herritar guztien eta udal agintarien aurrean ere. Laster, beharbada, herri ordezkariekin ere elkar ulertze hobea lortuko dugu, eta horri esker baita enpresa batzuen babes ere. Nork daki. Gauzak ez dira goizetik gauera lortzen.

AUZOLANAREN DEKALOGOIA

I

1) Auzolana gizarte ikuspegi bat da; ez da slogan bat. 2) Auzolana herri-gintza-helburuekin lotutako elkarlana da; ez edozein elkarlan mota. 3) Auzolana herrigintzarako antolaturiko pertsonak dira; helburu zehatzak bezain inportantea dira jendea eta funtzio soziala. 4) Auzolankide dira hasieratik buru-belarri dabilena zein ekintza jakin eta xume batean parte hartzen duena. 5) Auzolanak auzokoen lanerako baldintzak ezagutzera garamatza, eta beste kontzientzia maila bat ematen digu gainerakoen lanaz; aberastu egiten gaitu. 6) Auzolana talde-lana da; batzuetan eragiletza izan daitekeen moduan, beste batzuetan laguntzaile izatea izango da. 7) Auzolana horizontala da; pertsonatik pertsonara, talde edo elkar-teen baitan zein herri-mugimendu, instituzio eta enpresa arloko eragileen artean. 8) Auzolana erabakiak adostea eta zereginak banatzea da, bakoitzari dagokion esparruaren arabera. 9) Auzolana prozesu bat eta ikasbide bat da; jarrera irekia eskatzen du helburuei eta emaitzei begira. 10) Auzolanak lana egitea esan nahi du, auzokoari begira geratu barik; eta bi-zipozez lan egitea. ●